


MMXXII

# XXI. IPUIN ETA NARRAZIO LEHIAKETA
# XIV. BERTSOPAPER LEHIAKETA

2022

**Epea zabalik**
**<u>2022ko apirilaren 8ra arte</u>**

**<u>Informazioa eta oinarriak:</u>**
Erandioko **IKASTETXE**etan edo
udaleko **EUSKARA ZERBITZUAN**

www.erandiokoeuskarazerbitzua.eus
euskara@erandio.eus
944890128

---

**Datu hauek guztiak adierazi BEHAR dira:**

**Izenburua** ______ ☐ Ipuin/narrazioa ☐ Bertsopapera

**Izen-abizenak:** ______

**Adina:** ______ **Telefonoa(k):** ______

**Helbidea:** ______
kalea ataria (eskailera) solairua ate/aldea

**Herria:** ______ **Ikastetxea*:** ______

*** ikasle direnen kasuan**

# IPUIN/NARRAZIO eta BERTSOPAPER LEHIAKETAK – 2022

OINARRIAK

1. Erandioztar guztiek, eta udalerriko ikastetxeren bateko ikasle direnek ere, har dezakete parte. Kategoriak parte hartzaile kopuruaren eta adinaren arabera erabakiko dira.

2. Euskarazko ipuin edo narrazioek, gehienez, 6 orrialde izango dute, eta alde bakar batetik idatziak.

3. Partaide bakoitzak, gehienez jota, bi lan aurkeztu ahal izango ditu, eta hiru bertsopaper; sekula argitara eman gabekoak eta orijinalak.

4. Gaia librea izango da. Hala ere, ipuin/narrazio lehiaketarako ezinbestekoa izango da, Erandioko Berben Zerrendan agertzen diren hitzetatik gutxienez 3 erabiltzea.

https://n9.cl/berbak

5. Antolatzaileek izendatuko dituzte epaimahaikideak, herriko kultura edo/eta euskal munduarekin zerikusia duten talde eta norbanakoen artean.

6. Epaimahaikideek hartutako erabakia ukaezina izango da, eta haien esku geldituko da oinarriok interpretatzeko ahalmena, bai eta sor daitekeen edozein akats edo gorabeheraren inguruan erabakia hartzeko eskubidea ere.

7. Sarituak diren lanen jabetza, eta lanok argitaratzeko eskubidea ere, antolatzaileena izango da, horretarako egile(ar)en eskubide baimenik zertan eskatu izango ez dela. Maila bakoitzean sarituak izango diren lanak argitara emango dira (liburuxka batean edo/eta euskarri informatikoan).

8. Lanak Udaleko Euskara Zerbitzuan (Irailaren 23a plaza), edo norbere ikastetxean (Erandion kokatua bada) aurkeztu ahal dira, baina...

... PAPERAREN KONTSUMOA EKIDITEKO, eskertuko genizueke IZENA EMATEKO zein LANAK AURKEZTEKO web formularioa hau erabiltzea:
https://n9.cl/lehiaketa2022

9. Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar, ezinbestez, eta Erandioko Udalak DATU PERTSONALAK erabili ahal izango ditu, lehiaketaren kudeaketarako.

***80 -100 € bitarteko balioa duten sari-txartelak izango dira sariak, eta kategoria bakoitzeko 3 emango dira***

**Oinarri hauetan jasotzen ez den edozein gorabeheratan, antolatzaileak izango du erabakitzeko ahalmena**